KALAPUTXA

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2016ko otsaila 158. zenb.

MUTRIKU UEMAN

LAPAZORRIKEIXAK

- Lantesaren bertsuak
- Aberriren durdua

EMAKUMEAK ETA DESIRATZEAK

ESKAMAK KENTZEN:

Telesaila tradizioan errotu nahi izan dugu

Fran

GARAGARZA EIZAGIRRE

Futbolaren pasioa bizimodu eginda

martxoak
8
EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIARI EZ!
MARTXOAK 8
EMAKUMEAREN EGUNA
Martxoak 6, Igandea
"LABURTU MARRA HAU!"
Umeentzako antzerkia
Amaia Arriaranen eskutik.
Tokia: Zabiel Kultur Etxean
Ordua: Arratsaldeko 6etan
Martxoak 8, Asteartea
KONTZENTRAZIOA:
EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA
Tokia: Goiko plazan
Ordua: Arratsaldeko 7etan
Martxoak 13, Igandea
"BERDINTASUNA EZ DA IPUIN BAT"
Antzerkia BADUT-en eskutik
Tokia: Zabiel Kultur Etxean
Ordua: Arratsaldeko 7etan
Mutrikuko Udala

apain
Otsailak 24an, Ate Irekiak,
proba ezazu dohanik
diodozko laserra, eta hotzez
babes ezazu zure azala!!
Otsailak 29tik Martxoak 4arte berriro
Mutrikun Natura Bissé-ko burbuia,
%99ko oxigenoz beterik, zure gorputzak
naturaren indarrez berritzeko!!
Natura Bissé
Domingo Ibalbarriaga, 3 behea - 20830 Mutriku - 943 60 42 29 - 608 684 416 - apain@apain.net

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	8
Mutrikuarrak erbestian	10
Sexuenea	11
Karenka	12
Kulturia	14
Lapazorrikeixak	16
Bai Txo!	18
Aisialdia	19
Zorion agurrak	20
Argazki zaharra	21
Agenda	22

Kalaputxik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen-iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale,12 behea - 20830 Mutriku.

Telefonoa
635 748 393

e-maila
kalaputxi@topagunea.com
kalaputxi2001@gmail.com

Bloga
kalaputxi.blogspot.com

Laguntzailea
Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
I.Andonegi, J. Larrañaga, Sexuenea, EMA, Txantxangorri, Bai Txo!, MutrikuZeroZabor.

Tirada
2.200 ale

Lege Gordailua
SS-787/01

ISSN
1579-4792

Inprimategia
EUSKALINPRI. Deba

Banaketa
Kalaputxi

Gipuzkoako Foru Aldundia

Mutrikuko Udaleko Kultura eta Euskara

iritzixa

MUTRIKUARROK KONPETENTZIA TRANSBERSALAK LANTZEN

Hezkuntzan gero eta indar handiagoa hartzen ari den gaia da konpetentzia transbersalena, ikastetxetan jasotzen ditugun ikasgaiez gain, pertsona bezala dugun jarrera lantzearena alegia. Helburua garbia, ikasleak ikasteko jarrera ona izatea, edo behinik behin, hartarantz eboluzionatzea. Hau lortzeko, "jarrera onaren" definizio potoloa azpitaldetan banatzen da: dela iniziatiba, talde lana, ardura, arazoen ebazpena, sormena… eta ondoren bakoitza bere esparruan landu, azkenik ikasle bakoitzaren eboluzioa baloratzeko.

Azken urtetan Mutrikuko gazteek izan duten "pasotismoa" ardura iturri izan da udalarentzat, herriak ondo funtziona dezan gazteria aktiboa komeni, baina nola lortu gazteria aktibo bat?, bada herriko konpetentzia transbersalak landuz.

Azken finean behin eta berriz errepikatzen diren baloreak dira iniziatiba, sormena, sakrifizioa, talde lana, ardura, konpromisoa etab…, izan lanean, etxean, ikastetxean edota herrian bertan.

Hitz politak eta bla bla bla…, baina nola landu balore horiek herrian?, lanketa hori egin al dugu orain artean?, askok ezetz pentsatu arren, landu izan dira eta lantzen dira balore horiek, besteak beste herriko kultur eta kirol elkarteetan.

Elkarte hauek hor daude gure afizio edo kirolak praktikatzen laguntzeko, gustoko ekintzak antolatu eta hauetaz disfrutatzeko, edo besterik gabe antzeko zaletasunak dituen jendearen topagune izateko. Baina esandakoez aparte, berebiziko garrantzia dute herri baloreen lanketan. Elkarteko kide izatean, ohartu gabe ari gara aipatutako konpetentzia transbersalak lantzen. Berdin du izan Bertso Eskola, eskubaloi taldea, Gazte Asanblada, zesta, MRK edo dantza taldea, denetan lantzen bai dira baloreak gainera izaera herrikoi batetatik.

Nik bertso eskolan ikusten dut baina esango nuke beste taldeetan ere halaxe dela. Adibidez, oraintxe pasa berri den Okelartarren omenaldia antolatzerakoan edo baita Santa Eskean ere, automatikoki piztu da sormena bertso eskolako kideon artean, berdin konpromisoa hartzeko grina, nola ez bakoitzaren ardura, denon arteko talde-lana eta gutxien uste denean sortzen diren arazoen ebazpena. Agian koska hor dago, parte hartzaile izatetik kide izaterako pausutxo hortan.

Daukan garrantziaz jabetuta, ea herriko gazteek gure ekintzetan parte hartzen asmatzen dugun, beraien nahiak entzun eta aukerak eman, etorkizunean proiektu komun bateko kide senti daitezen. Hori lortu ezkero modu naturalean etorriko baita bestea.

Xabi Astigarraga Pagoaga

telefonoak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00

Zaintzako botikak:

*Lasuen-Elezgarai (Mutriku)	943 19 50 26 / 626 611 392
Apraiz (Mutriku)	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Zalduegi (Deba)	669 26 22 01
Burgoa (Deba)	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77

*Otxagabia botika hemendik aurrera Lasuen-Elezgarai da

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Turismo bulegoa	943 60 33 78
Bake Epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz Frontoia	943 60 41 91
Ur partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Anai Arte	943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola	943 60 36 75
San Miguel ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 35 45
Udal euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika eskola	943 60 37 80
Haur eskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia	638 672 383
Anton Taxia	666 221 999
Xabi Taxia	656 289 026
Lurraldebus	943 41 52 08
Pesa autobusak	902 10 12 10
Bizkaibus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Sta Katalina eliza	943 60 34 42
Kofradia	943 60 32 00
Posta zerbitzua	943 60 30 44

ordutegiak

Deban trenarekin lotzeko aukera, bai joaneko eta bai itzulerako zerbitzuetan

MUTRIKUTIK → ZUMAIARA

Astegunak
06:25 / 11:00 / 13:25 / 16:25 / 18:25
Zapatuak
09:25 / 12:25 / 14:25 / 16:25 / 18:25 / 20:25
Jai egunak
10:25 / 12:25 / 15:25 / 17:25 / 19:25

ZUMAIATIK → MUTRIKURA

Astegunak
07:10 / 08:10 / 09:10 / 12:10 / 14:10 / 15:10 / 17:10 / 19:10 / 20:10
Zapatuak
10:10 / 11:10 / 13:10 / 15:10 / 17:10 / 19:10 / 21:10 / 22:10
Jai egunak
11:10 / 13:10 / 14:10 / 16:10 / 18:10 / 20:10 / 21:10

MUTRIKUTIK → SORALUZERA

Astegunak
08:45 / 10:45 / 12:45 / 14:45 / 17:45 / 19:45 / 21:45
Asteburu eta jai egunak
09:45tan zapatutan bakarrik /11:45 / 13:45 / 17:45 / 19:45 / 21:45

SORALUZETIK → MUTRIKURA

Astegunak
07:40 / 09:40 / 11:40 / 13:40 / 16:40 / 18:40 / 20:40
Asteburu eta jai egunak
08:40tan zapatutan bakarrik / 10:40 / 12:40 / 16:40 / 18:40 / 20:40

www.lurraldebus.eus edo 943 41 52 08
euskotren.eus edo 902 54 32 10
pesa.net edo 900 12 14 00
bizkaibus 902 22 22 65

ELKARTASUNA TINDUFEAINO

Urri bukaerako martitzen baten, Lur lotatzen nauala, mezu bat allau zitzaten: Saharar errefuxatuen Tindufeko kanpamentuetan sekulako ujolak eta haizetiak izan ziala, urak dana eruan zoala eta Ondarrun jatekua, neguko erropia eta mantak batuko zitxuezela eguaztenetik zapatura.

Igual amatasunak bihotza beratuta, batere pentsatu gabe, herriko denda batzuta jun ginan jendiak emandako gauzak jasotzeko prest zozen galdetzea. Danak baietz erantzun, mezua zabaldu eta eguaztenian bertan hasi ginan gauzak batzen.

Mutrikun bezela, Lekeitxion eta Ondarruan ere herritxarrak eskuzabal jokau eta aurreikuspen danak gainditxu zian! Euren furgonetak beteta, gauza mordua gelditxu zan eruan ezinda. Tindufen premixa dauala jakinda, Mutrikuko Udalea jo gendun. Furgoneta osua betetzeko lain ez, baina dexente betetzeko dirua jarriko zeuela. Sahararrakin lankidetzan dabilen Maiatzak 20 elkartiakin biajian kontuak lotu eta bixaltzeko materixala antolau gendun.

Urtarrileko iluntze batian etorri zan Saleh furgonetia betetzea, zuen elkartasuna Tindufea eruateko.

Eskerrik asko herritxarroi, dendarixoi, Udalai eta era desberdinetan lagundu dezuen dan-danoi.

Izaskun Osinalde

2016-KO SANTA ESKEA

Santa eskea otsaialk seia
Aurten karnabalak berez
Aterik ate aritu ginen
Hotzari aurre eginez

Iaz bezela Santa Eskeak
Bazituen bi helburu
Parte hartzea bultzatu eta
Kultur taldeei lagundu

Ohitura zarrak ustartzen ditu
Kantua eta eskea
Beste behin ere eskertzekoa
Jendean borondatea

Batu genuen limosnatikan
Egin genitun zati bi
Erdia bertso eskolari ta
Bestea Kalaputxiri

Eskerrik asko Mutrikuarroi,
hor jarraitu parte hartzen
Ohiturei eusten dien herriak
Nortasunik ez du galtzen!!!

Mutrikuko Bertso Eskola

Kalaputxik irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira: Kalaputxi, Barrenkalea 12 behea, 20830 Mutriku edo internet bidez bidaltzeko: kalaputxi2001@gmail.com edo kalaputxi@topagunea.com

BETAURREKO LILAK

Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna da.

Aipamen bat egin nahi degu, pixkat “pilak” ipintzeko balioko digun joku baten berri emateko. Munduko eta hemengo historian aurkikuntza haundien sortzaile eta gertakari sozial garrantzitsuen eragile izan direnen hainbeste emakumeren berri izateko diguedukiko aukera ematen digu eta hitz batean emakume oso emankorrak izan direnak baina guretzat oraindik ere oso ezezagunak direnak ezagutzeko modua eskura jartzen digu mahai joku honek: TRIBIAL FEMINISTA

Tribial Feminista. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea helburu duen mahai gaineko jokoa da, Betiko “Trivial” jokoaren formatua dauka eta gaiarekin zerikusia duten 1.200 galdera ditu: Artea eta Literatura, Zientziak, Kirola, Ikuskizunak, Geografia eta Gizartea, eta Historia. Galderak zenbait kategoriatan sailkatzen dira: historia; kirolak; zientziak; artea eta literatura; geografia; ikuskizunak; eta natura. Badago baita ere formatu digitalean. Iaz Emakumeen Nazioarteko Egunaren testuinguruan Smarthphone (Android: http://bit.ly/tribial ;) eta tabletetarako Tribial Feminista aurkeztu zuten, doakoa eta euskaraz.

Helburua da genero-parekidetasuna sustatzea, emakumeak historia zehar betetako paperari ikusgarritasuna ematen dioten galderen bitartez. Horien guztien bidez, feminismoak egindako ekarpenen garrantzia aldarrikatu, parekidetasun eza salatu, eta aditzera ematen da sistema hori ez dela bidezkoa eta, gainera, bereizketa hori kaltegarria dela, bai emakumeentzat, bai gizonentzat.

emakumeakmutrikunabian@gmail.com

Eskamak kentzen

“telesaila tradizioan errotu nahi izan dugu”

Mutriku eta pantaila handia aspaldidanik egon dira harremanetan. Gure herria hainbat filmatan agertu izan da, eta mutrikuarrak ere iritsi dira pantailaren munduan lan egitera. Juan de Landa aktore ospetsua izan genuen Hollywooden, baina gure garaian ere mutrikuar gazteak hor dabiltza kamararen atzeko lanetan. Horietako bat Iñigo Lezertua dugu, Ameriketan ibilia eta gaur egun Madrilen dabilena. Hainbat proiektutan jardundakoa, gaur egun puri-purixan dugun Eskamak kentzen telesailaren produkzioan dihardu, gidoilari. Berarengana jo dugu telesailaz gehiago jakitearren.

Nolatan Eskabetxerak gaia telebistara?

Duela ia bi urte kate nazional batek emakumeek protagonizatutako komedia bat eskatu zigun. Nik Madrilen “La Competencia” produktoran egiten dut lan fikziozko I+D departamentuan, fikziozko serie eta pelikula originalak garatzen. Eskaera hari erantzunez, etxeko sustraietara jo nuen eta Mutrikun sare konpontzaile eta eskabetxearekin gogoratu nintzen. Lankideei eta nire produktoreari asko gustatu zitzaien ideia eta hortik hasi ginen seriaren “Biblia” garatzen. Azkenean, kate nazionalarekin ez, baina ETBn egiteko aukera sortu zen.

Seriearen izen orijinala “Eskabetxerak”edo “eskabetxeko neskak” izatea nahi nuen baina ETBko euskara zuzentzaileek ez zidaten utzi. Pena, ze izenak berak konnotazio asko ditu, baina Euskal Herri osoko publikoari irisgarria egin behar zaio.

Nolatan Mutrikun grabatu, kokatu?

Bi erantzun eman nitzake, bata mutrikuar bezala eta bestea telesailaren egile bezala. Egile edo ekoizle bezala Mutrikuk irudi paregabeak eskaintzen dizkigu. Itsasoari karenka egoteak argi berezia ematen digu grabatu ahal izateko. Eta batez ere, telesaila tradizioari errotu nahi genuenez, Mutrikuko portua harriz egina izatea, eta ez porlanez, asko interesatzen zitzaigun.

Hori dena, ekoizle bezala, eta Mutrikuar bezela erantzun neike esanez, Mutriku bezalako txokorik ez dagoela inon ere, eta erakutsi beharra zegoela.

Zer eskaintzen dio Mutrikuk telesailari?

Guk itsasoa ahalik eta gehien erakutsi nahi genuen, eta Mutrikuk eskaintzen zigun alderdi on bat: Arkupea, Intxirria, Tranpakale, Kofradi zaharra… lokalizazio hauek guztiak unitate mugikorraren erradioan sartzen ziren. Eszena gehienak, metro gutxian beraz. Gero, bigarren unidade txiki batekin saiatu gara herriko kaleak, Atxukale, Samikolla, Goiko plaza eta Mollaberri aldeak erakusten, baina ezin nahi beste. Mutrikuko parajeak izugarri ondo ikusten dira pantailan. Orain Madrilen lehen kapituluen premasterrak erakusten ari garenean jende askori atentzioa deitzen dio.

Bestealde, aurrez komentatu bezala, Mutriku harriz harri eraiki den herria da. Portuko kaleek eta eraikinek bistan dituzte harri horiek guztiak eta horrek izugarrizko sinesgarritasuna ematen dio serieari. Kostaldeko herriek ez dute itsasora bista gehiegirik, baina gure aldapek itsasora begira irudi paregabeak eskaintzen dizkigute, eta herrira inongo argazki zuzendarik lortu ezin dezakeen argia sartzen uzten du. Irudi aldetik herri paregabea da, zaintzea merezi du, herritarrok agian ez baitugu nahikoa apreziatzen, ezta zaintzen ere. Eta gero kanpotik etorri behar ze herri polita dugun esatera.

Zer ekar diezaioke telesailak Mutrikuri?

Industria honetan lan egitean zer ekarri diezaiokeen esan dezaket. Datu sinesgaitz batzuk emango ditut, baina berriro diot, hau ez da gertatuko dena, gerta daitekeena baizik. Argi geratu dadila telebista eta serieak ez direla lau titiriteroren kontua.

Espainiako telebistetan 20 segunduko iragarki batek Prime-time orduan, hau da, 22:30tik 00:00 bitartean, 13.000-26.000 euro bitartean balio dezake. Eta Mutrikuk ordubete izango du astean. Egia esan, ETBren audientziak eta publizitate prezioek ez dute horrekin zerikusirik, baina kontuan izateko ze garrantzi duen telebistan presentzia izateak, ezagutzera emateak. Ezagutzera emateak ez du esan nahi turistak bakarrik erakarriko dituenik, inbertsioa ere erakarri dezake. Eta horren adibidea, gure produktorak “Doctor Mateo” bertan grabatuta, Lastresen geratutako “enplegu osoa”. Edota Ocho apellidos vascosen fenomenoa.

Euskal instituzioak ere jakitun dira horretaz, eta Foru aldundiak onura fiskalak aprobatzekotan dira atzerriko produkzioak erakartzeko. Zine produkzioak ekarriz gero, kanpotik datorren euro bakoitzak 3-5 euro gene-

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tleak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

ratu dezake. Lanpostu ez zuzenetan izaten duten inpaktua haundia izaten da.
Honekin ez dut esan nahi Mutrikun Juego de Tronos edo James Bond berria grabatuko denik, baina bai momentu interesgarri batean gaudela pelikulak ekartzeko, eta Mutrikuk telebistan bere erakusleihoa izatea aukera oso ona izango da herriarentzat.

Gidoia. Konta badaiteke, zein izango da trama?

Oso laburbilduta, eskabetxean lan egiten duten eta estutasunean bizi diren emakumeei buruz doa “Eskamak kentzen”.
Pixkat saiatu gara lan balore tradizionalak errekuperatzen, komunitatearen zentzua, langileen arteko solidaritatea… Azken baten, gure amona Maritxuk beti esaten zuen, gerra ondorenean miseria haundia zegoela, baina denak zirenez pobre, elkar laguntzen zirela eta horrela egiten zuten aurrera. Komunitate zentzu hori Mutrikuk beti eduki izan du, eta oraindik ere badauka.
Tematikoki ere saiatu gara gaur egungo herrien izaera eta nortasun arazoak islatzen. Tradizioa eta modernitatearen arteko eztabaida, balore aldaketak, progresoaren izenean egiten ditugun astakeriak… gaur egun herrien memoriari oso errespetu gutxi diogu, eta “Eskamak kentzen” memoria hori erreibindikatzen saiatzen da.

Pertsonaia “mutrikuarrik” ba al dago, mutrikuar izaera duenik?

Nik uste denek dutela mutrikuar puntu bat. Baina agian, amona (Itziar Aizpuru) da mutrikuarrena. Bera ere, erdi mutrikuarra delako agian. Telesaila ikustea onena, ea nor sentitzen den identifikatuta, nik nahiago dut izenik ez eman.
Baina pertsonaiek badute kostako emakumeen karakterra eta horrekin komedia egiten saiatu gara. Neska guztiak eskabetxan elkarrekin eta beraien kontuak elkar kontatzen ikustean barre asko egingo dugu. Hizkeran saiatu naiz Mutrikuko esamoldeak edo hitzak sartzen…

Zer diote kanpoko aktoreek Mutrikuri buruz?

Aktoreak oso gustura egon dira Mutrikun. Benetan, maiteminduta. Gainera herritarrek etxean bezala sentiarazi diete Itzultzeko gogoz dira asko, baina lanaren estuasunik gabe, egun pasa egitera. Aktoreetaz aparte, lan taldea ere gustura aritu da, eta batek baino gehiagok aitortu dit ez zutela Mutriku horrelakoa izatea espero. Askok esaten zidaten herri ezezaguna egiten zitzaiela, entzunda bai, baina ez zekitela ez mapan kokatzen, ez ze herri klase zen esaten ere. ETBn Mutriku “saltzeko” gogoz daude eta ziur ezagutzera emango dugula.

Amaitzeko, besterik?

Eskerrak eman behar dizkiegu Udaletxeari eta alkateari, langileen brigadari, Arraun Taldeko arraunlari eta arduradunei, Arkugain soziedadeko lehendakari eta sozioei, portuko auzolagun guztiei, sortutako eragozpen guztiak hain ondo hartzearren eta pazientzagatik, Turismo bulegoko langileei, Mila eta Ninfari, antzerki taldekoei, Marina eta Maria Jesusi aktoreei antxoak gazitzen erakustearren… Egia esan zerrenda luzea da eta asko utzi ditut eskertzeko baina bueno…

MUTRIKUKO TANATORIOA
Ntra. Sra. de Begoña
EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

MIRUAITZETIK MIAMIKO JAI ALAIRA

Jon Goenaga Flores pilotari mutrikuarra Amerikketara doa, Miamiko Jai Alai frontoira. Umeumetatik Danok Bat pilota elkartean Jon Mendizabal Goixerriren esanetara afizionatu maila guztietako txapel guztiak irabazi ondoren, Miruaitz frontoia utzi eta profesionaletan hastera doa, momentuz, 2016 urtea bukatu artean. Izango dugu Jonen ibileraren berri hurrengo batean. Eredu bikaina Danok Bateko gazteentzat, ispilu ederra non begiratu. Animo Jon, bejondeizula!

"MUTRIKU, EUSKAL ITSASOAREN TALAIA" INTERPRETAZIO PANELAK

Jakina denez, urtetik urtera gero eta gehiago dira Mutriku bisitatzera datozenak, eta hori kontuan izanda, Euskal Kostaldeko Geoparkeak gure herrien ondare natural, geologiko eta kultural oparoa azaltzeko Interpretazio Plana burutu zuen. Plan horren baitan, 2014 urtean Udalak Eusko Ikaskuntzak erakundeari eskatu zion "Mutrikuko Itsas Ondare Natural eta Kulturalaren interpretazio plana" diseinatzeko eta haren baitan kokatzen dira oraintsu ezarri diren panelak. Gure herriaren historiaren zati batzuen berri bisitariei eskaintzeko modu egokia.

OTSAILERAKO EGITARAU OPAROA ANTOLATU DU MUTRIKUKO GAZTETXEAK

Mutrikuko Gaztetxea biziberritzen ari direla-eta, egitarau dotorea antolatu dute otsailerako. Asmo handiak, ilusioa eta eskura dituzten baliabideak erabilita, hilez hile antolatutako egitarau anitza eskaini nahi dute: kultura, musika, artea, politika, feminismoa, kirola, festa zein bestelako adierazpenei leku eginez.
Orain, era guztietako ekintzak antolatu dituzte otsailerako, besteak beste: Santa Eskea, film emanaldiak, dokumentalak, solasaldiak, kontzertuak...

HONDAKINAK ETA KONPOSTA

Herritarren konposta izan leike: ETXEKUA ala AUZOKUA. Etxekua da, norberak bere konpostatze ontzia duenian, baserrixan, baratzan... Auzokua berriz, fameli mordo batek elkarrekin antolatuta daukatenian etxe inguruko lekuren baten. Mutrikun, etxeetakuak pilua daude, ze bizpahiru kanpaina eginak baitaude! AUZOKONPOSTA lekua berriz, bat bakarra dago martxan, ikastola bidian. Harrezkero, hasi zira Ondarruan Markinan eta Deban, eta dagoeneko hiruzpalau ipini dituzte beren herrixetan.

ZER DA? Auzokonposta egitera eraman behar da, edukiontzi marroira eramango gendukena: janari hondarrak eta lur bihurtu daitezkeenak. Dana, bihurtzen da azkenean lur ongarria. Beraz laburtuta: "Konpostatzea = soberakinak lur bihurtzea"

ZENBAT ETA JENDE GEHIAGIOK herrixan egin auzokonposta, orduan eta hondakin gutxiago sortzen degu; herriko berdeguneetako eta herritarrentzako konposta aterako genduke;
kaleko txakur kakak, hain eztabaidatuak, lekua lukete konpostguneetan eta kaleak garbi; autokudeatzen/gestionatzen ikasiko genduke; prezioan ere igarri egin beharko genduke... ALTXOR BAT DA!

Esan bezela, material ORGANIKOA birziklagarri eta berriz lur bihurtu daitekeen dana da, ezagutzen degu "txarrijana" edo "zimaurra" egiteko gordetzen zana, ba guzti hori, material maturalak.., eta abar. Gai ORGANIKOA izango hain zuzen ere, ipinitakuan, edukiontzi marroira bota beharko deguna.. Hurrengoan, marroirako gaixak zeintzuk diran zehatzako azalduko degunez, hemen utziko degu. Baina, espero degu, auzokonpostaren bidetik ere, joko degula, hainbat fameli baikaude egiteko prest, ipintzia oso kostosoa ez dalako, eta onura pilua aterako degulako herritarrok. Hala izan dadila. EZ AHAZTU: HONDAKINIK ONENA SORTZEN EZ DANA!

ZERO ZABOR

mutrikuzerozabor@gmail.com



TELEBISTA DIGITALEKO KANALAK ETA 4G TELEFONO SAREA

Telefono mugikorren 4G sarea zabaltzen ari denez, etxean orain arte ondo ikusi diren TDT kanalak gaizki ikusten hasi daiteke, sor daitezkeen interferentzien erruz. Hori gertatuz gero, Llega800 entitatearen 900 833 999 zenbakiko doako telefonora deitu eta behar den guztia egingo dute bertatik etxean berriz telebista ondo ikusteko. Internet bidez ere egin daiteke eskaria www.llega800.es helbidean aurkitu daitekeen formularioaren bitartez.

Esan beharra dago telebista kanalak zuntz optikoz, satelitez edota internetez jasotzen dituztenek ez dutela arazorik izango. Telebista kanalak teilatuko antena bidez jasotzen dutenek izan ditzakete arazoak.

HITZA MUGIKORREAN

Herriko eta eskualdeko berriak berehalakoan jaso nahi? Ba, HITZAren aplikazioa eskuragarri dago mugikor eta tabletetan. Dagoeneko 1.700 deskarga lortu ditu, eta 3.000 deskarga lortzea dute APPostua. Lortu baietz! Erabili eta zabaldu: http://lea-artibaietamutriku.hitza.eus/

ARGITU ERABAKIA

Gure Esku Dagok erabakitzeko eskubidearen aldeko kanpaina abian jarriko du martxoaren 11n arratsaldeko 7etan. Goiko Plazatik abiatu eta kalejiran beheko plazara joan ondoren kandela argiz jantziko dugu irudia. 2016rako dauden proiektuen berri eman eta orain arteko ekintzetan bildutako irudiak ikusteko aukera izango dugu.

Bestalde, Gure Esku Dago ekimenak aurrera eramateko bazkide kanpaina martxan jarri da. Internet bidez egiteko aukera helbide honetan *http://sarea.gureeskudago* edo zuzenean Gure Esku Dago taldekoekin harremanetan jarrita.

SANTA ESKIA 2016

Aurten ere, usadioa galdu ez dadin, kalez kale eta baserriz baserri aritu dira, beraien eztarri sanoak aproban jarri eta bazterrak kantuz pozten, eguraldia lagun. Bildutako dirua, Bertso Eskola eta Kalaputxirentzako izango da. Eskerrik asko gure bideko lagunei, zuen laguntzaz bete genezake urte hontako jarduna. Ieup!

Itsas usaina falta da Txekian

Jose Luis Martinez Azpiazu eta Maria Rita Garagarza Burgaña mutrikuarrak 2012 urtetik bizi dira Txekiako Liberec 140.000 bizilaguneko hirian, Pragatik 110 km-ra, ordubetera. Gure Euskal Herriarekin antzekotasun handiko paisaia duen baina itsasoa falta zaion parajea, nonbait.

Lan kontuek eraman zuten Jose Luis Txekiaraino 2006 urtean, lehenago Txina aldean ere bere denboraldian pasa ondoren. Txekiako lehenengo aldia igaro ondoren, epe luzean hantxe kokatu beharra planteatu zitzaion Jose Luisi, eta noski, bikote planteamendua egin beharra zegoen. Erabakia hartu eta han joan ziren biak, Cicautxo enpresaren Txekiako aurpegiak izatera.

Txekiara iritsi eta han bizitzen jartzean, hizkuntza benetako arazo izan daitekeela konturatu ziren. “Oso gogorra da txekiera. Diotenez, txekiarrei beraiei ere oso zail egiten zaie zuzen mintzatzea beren hizkuntzan. Lanean, ingelesarekin egoki moldatzen gara eta ez dago gorabehera handirik. Baina lanetik irten eta eguneroko bizimoduan gauzak bestela dira” diote.

Hango jendea ere gogorra da, eta kosta egiten da beraiekin harremanetan jartzea, konfidantza hartzea, “baina behin konfidantza hori hartutakoan, erabat zabaltzen zaizkizu eta beraietako bat gehiago zara. Alde horretatik, gure izaeraren zantzuak hartu izan ditut beti Txekian” esan digu Jose Luisek.

Maria Rita hasita dago txekiera ikasten eta, tira, moldatzen da eta ari da erabiltzen. Jose Luis, berriz, egunerokoan erabiltzen diren esaera erabilienak, zenbakiak… horrelakoak bai, baina ez gehiago. Behar denean, google-en itzultzailea ere jartzen du lanean.

Han bizimodu egokia duten arren, kanpoan bizi den edozein herritarrek moduan, familiaz gain, bi gauza hartzen dute nagusiki faltan: lagunartea eta itsasoa, kresal usaina. (Hori esatean, emozioz beterik, begiak bete-bete egin zaizkio Jose Luisi…)

Hemen izan ez eta han zer duten galdetuta, erronka profesionala aipatu digu Jose Luisek, eta arrazoitu: “250 langileko planta aurrera ateratzea eta prozesu horretan lanerako giro ona lortzea eta mantentzea erronka ederra da hango egonaldia hain gogorra ez gertatzeko”. Aste osoan hamabi orduko lan-jardunaldiak egin ondoren asteburuan etxean ematea dute ohizkoa han; Liberecen, zapatu goizean bizpahiru orduko mendi buelta egin eta etxean geratu goxo-goxo, hemen, Mutrikun, ez bezala. “Hemen gaudenean, batera eta bestera, beti kalean!”.

Epe luzerako joan diren arren, Mutrikura bueltatzeko ideia egutegian ondo markatuta dutela diote: 2017ko abendua. Izan ere, orduantxe jubilatuko da Jose Luis eta Mutrikura itzuliko dira hemen geratzeko. Bitartean, jubilatuen egutegiarekin jardungo dute, orain artean bezala, eta Aste santuan, Malenetan, Galbaixotan eta Gabonetan etorriko dira, fiñfiñean, Mutrikuko familia eta lagunak bisitatzera eta, jakina, kresal usaina hartzera.

Mutrikuarrok Txekiara joateko ze arrazoi izan dezakegun galdetu diegu, hurrengo bidaia prestatzean hara joateko aukera egiteko. Esan digute Europa zaharraren kultura ezagutzeko inguru zabal bat dagoela Txekian, eta Txekiaren inguruan. Hiru-lau orduko bidean, hainbat eta hainbat hiri eta herri bisita litezke. Nik bat bereziki gomendatuko nuke: Cesky Krumlov, Unescok Gizateriaren Ondare izendapena emandako hamabost mila biztanleko herria.

Amaitu aurretik, Jose Luisek adierazi nahi izan du aspaldiko urteetan Europa zabaleko aireportuetan mutrikuar askorekin topo egitea gertatu zaiola, eta konturatu dela mutrikuarrak formazio handiagoko postuetan dihardutela lanean, eta hori pozgarria egiten zaiola.

Sbohem, bikote.

Emakumeak eta desiratzeak

Kaixo! Eztabaidara ekarri nahi dut gai bat, izan ere, sare-sozialetan hainbat eztabaida izan ditut nire ondoko gogoetak zirela eta. Tira, kontu guztia bi ejeren artean ikusten dudan harreman aukeratan datza: emakumeak eta sexualitatea. Argi dago ondo dagoela neskok gure sexualitateaz disfrutatzea, baina,... tira, batzuetan uste dut sexualitateari zentraltasun gehiegi ematen diogula eta, gainera, emakumezko askok sexualitateaz disfrutatzerakoan patriarkatuari jokoa egitea besterik ez dutela buruan: sexy-ak izan, bestearen plazerean pentsatu,... Ez dakit, non dago muga? Emakumeok ez ote genuke sexualitate alternatiboz gozatu beharko benetan patriarkatua geldiarazteko,...?

Badirudi gauza gehiegi nahasten hari zarela. Behintzat, gure ikuspuntutik. Izan ere, orain momentuan hartu duzun prismatik, zuk diozun bezala, "patriarkatuari" jokoa ez egiteko bide bakarra ba omen dirudi aerotikoak izan behar garela... edo, hobeto esanda, aeromenikoak.

Sexologian darabilkigun hitz arraro honekin erreferentzi egiten diogu "desiratua izatea desira duen" pertsonari. Egia da kultura patriarkalak, bere forma desberdinetan, munduko leku eta garai desberdinetan, emakume (heterosexual, noski) eromenikoen derrigortasuna inposatu duela, norberaren plazerrerako bideak bilatzeko traba bilakatu nahian. Emakume erastikoak familia nuklearraren bukaera ekar zezakeen beldurra baitzegoen kultura hauetan.

Imaginako duzuen bezala, erastikoa diogu "desiratzearen desira duen" pertsonaz hitz egiterakoan.

Azkar eta gaizki esanda, eromenikoak desiraren alde pasiboa dira eta erastikoak alde aktiboa. Baina ez dira, baizik eta diruditela. Hor dago zure galderaren gakoa.

Emakume askok (beste horrenbeste gizonezkok bezalaxe), beraien gorputza eta izaera modu eromenikoetan erabiltzen dituzte. Baina hau ez da beti, are gehiago, hau ez da askotan pasibotasun eta jarrera sumiso patriarkal baten isla. Are gehiago, eta seguru zure biografiari begira berdina ikusiko duzula, batzuetan eromenia eta erastiaren muga oso lausoa da.

Zure galdera planteatzen duzunean, eromenikoak diren emakume heterosexualen agentzia pikutara bidaltzen duzu. Hau da, indarkeri egoerei aurre egiteko "ez-gai"-tzat jotzen dituzu, beraien gaitasunak eta kritikotasuna ukatuz, ezinezkoak bailiran.

Zure ideia anabas horretan nonbaiten galdu da, gure ustez, irudi horren guztiaren atzean egia den bakarra: bizi garen kultura sexista honetan, egongo direla, bai, emakumeen eromenia eta erastia ere gaizki interpretatu eta zigortuko dituztenak. Batzuk emakumeak... baina beste hainbat gizonezkoak. Eta guztiek pentsako dute edozeinen bizitza epaitzeko eskubidean daudela. Baina guk badakigu eta argi daukagu, hori ez dela horrela.

Horregatik, norbaiten desira erakarri nahi dudalako edo nik nire burua horrela ikusteko gogotsu nahoelako "sexy" janzten banaiz; gau batean mutil batekin, bi neska edo inorekin bukatzen badut; amatasunaren esperientzia gazte bizitzea ederra iruditzen bazait edo munduko baliabide guztiak eskura izanda ere abortoa bada niretzat aukerarik zintzoena nire desirekiko,... beste guztiei bost axola. **Gogora dezagun; gure gorputza, gure erabakia!**

Galderak edo zalantzak argitzeko:
sexuenea@gmail.com

Fran Garagarza,
futbolaren pasioa bizimodu eginda

Hainbat eta hainbat umeren moduan, Fran Garagarza Eizagirre (Mutriku, 1969) Mutriku Futbol Taldearen kategoria guztietako taldeetatik pasatu zen futbolean jokatzen. Mutriku Txikin hasi eta Mutrikuarretan amaitu. Lehenengo entrenatzaile titulua ere Mutrikun zebilela atera zuen, Fran Zizzok gogoratu digunez. Ondoren, futbolaren bidetik jarraitu zuen, zelaian lehenengo eta bulegoetan gero, eta gaur arteko ibilbide oparoa izan du. Eta aurrerantzean ere bide horretatik jarraitzea espero du.

Mutrikun hasi zinen entrenatzen…
Mutrikuko gazteekin hasi nintzen, kadeteekin eta jubenilekin gero, Pedro Carretero eta biok. Gero Kilimon, Eibar Urko, Elgoibar, Mutriku, Aurrera, afizionatuen Euskal Selkzio seniorra… etorri ziren, eta Eibarrera heldu nintzen. Eibarren lehenengo taldean bigarren entrenatzaile postuan hasi nintzen bigarren A mailan, eta gero oinarriaren koordinatzaile izatera pasatu ninduten, futbol-eskolaren eta gazte maila guztien ardura hartzeko. Hortik, lehenengo taldearen eta klubaren zuzendari teknikoa izateko jarri zuten konfidantza niregan. Eskerrak eman beharrean nago ni bezalako gazte batengan sinesmen osoa jarri zutelako, lehenengo Jaime Barriusoren taldeari eta gero Alex Aranzabalenari.

Gaur egun, futbola da zure bizimodua…
Eibarrek lehenengo taldean bigarren entrenatzaile izateko deitu zidanean dedikazio osoz jardun ahal izateko aurreko lana utzi behar izan nuen, hainbeste urtetan errekadista ibili eta gero. Eta ordutik futboletik bizitzeko zortea izan dut. Txikitako ametsa futbolista izaten da, eta gaztetakoa entzenatzaile izatea eta hortik bizitzea. Esan dezaket ametsa bizitzen ari naizela. Niretzat futbola pasioa izan da, eta gaur da eguna pasio hori nire lanbidea dela. Eta lan honetan ez dut bat ere sufrimendurik, badakizu, gogoko aldapan, nekerik ez!

Eibarren arrakastaren gakoa?
Eibarren arrakasta bere maila zein den jakitea eta muga horien barruan bizitzea izan da. Garai ekonomiko txarretan hainbat erabaki hartu ziren eta haiek guztiek ekarri gaituzte honaino. Horietan nagusiena beharbada, defizit 0 izan zen, daukagunaren araberakoak izatea, buruz gaineko zorretan sartuta ibili gabe. Bestalde, gure betiko baloreak lantzeak sinesgarritasuna ematen digu. Eibarrera datorrenak badaki seriotasuna izango duela, eman zaion hitza jasoko duela, ondo zainduta eta maitatuta egongo dela. Beharbada dirutan ez gara izango aukera onena, baina bestelakoetan izan gaitezke. Orain lehenengo mailan gaudelako ez gara duela hiru eta lau urte baino hobeak.

Eibarrera ailegatu zinenetik hona, gauzak asko aldatu al dira?
Ez dauka zerikusirik, eta aldaketa horretan herriko eragile askok izan dute garrantzia, herritik hasita, zaletuak, direktiba, entrenatzaileen konpromisoa, jokalarien konpromisoa…Eibarrek izen bat egin du eta izen horren balorazioa gero eta hobea da futbolaren mundutxo honetan. Egitura aldetik ere, denetatik dauka klubak, eta zerbitzu aldetik taldeko profesionalek punta-puntako zerbitzuak jasotzen dituzte.
Bestalde, esan behar dut lehengoak garela, eta benetakoak izan nahi badugu, horrela izan behar dela.

Lehen alebinen batek arazoa bazuen eta haren amak nirekin hitz egin nahi bazuen eta hitz egiten bagenuen, orain ere berdin jokatu behar dugu. Lehengo lepotik dugu burua, eta horrela jarraitu behar dugu, apaltasunez lan eginez.

Lehen mailara igotzea gauza handia izan zen…

Lehenengo mailara igoera bigarren B mailatik bigarren A mailara igo ginenean hasi zen lortzen, urteak lehenago baizik. Bigarren mailara igo ginenean, gogoan dut hamaika jokalari baino gehiagorekin jokatu genuela. Publikoa izaten da hamabigarrena, baina igoera faseko azken kanporaketan Hospitaleten aurkako partiduan Garmendia, Bixente, Arriola eta jokalari ohi haiek kaxetan sartu eta hamar minututan hizketan egin ondoren, zelaira irten eta ordu erdira 3-0 gindoazen. Inoiz inon bizi izan gabeko esperientzia izan zen hura jokalarientzat. Hantxe hasi zen guztia gauzatzen.

Garitano eta gero Mendilibar. Kasualitatea biak etxekoak izatea?

Ez da kasualidadea. Eibarrek argi du bere idiosinkrasia zein den, eta zerbait izango bada bere balioei eutsita izango dela. Etxeko entrenatzaileari ez diogu azalpen gehiegi eman behar. Badaki Eibarren zer daukan, eta zer ez zaion eskatuko. Baina entrena-tzailearekin bezala, jokalariekin eta langile guztiekin ere berdin jokatu nahi izaten dugu. Jokalariekin zailagoa da, hemengo jokalariak lortzeko Erreala eta Athletic hor daudelako eta nekez konpetitu dezakegulako beraiekin, baina bestela, talde tekniko osoa bertako jendearekin osatuta daukagu. Eta mediku-taldea ere berdin, fisioak, medikuak… denak dira Euskal Herrikoak. Medikua, kirol-medikua, neska da eta hori ere bitxia da futbol profesionalaren munduan, eta horretan ere Eibarrek balio bat erakusten du. Harrotasunez esan dezakegu mediku-talde bikaina dugula.

Mutrikutik Azkoitira joan zinen, baina ez duzu ahaztu herrirako bidea.

Azkoitin bizi den mutrikuarra naiz ni, beste batzuk moduan. Eta Mutrikura nahi baino gutxiagotan etorri arren, aukera dugunetan hemen gaude. Udan ere, beste inon baino, Mutrikun gustoren. Mutrikuarrok barru-barruan daramagu herria eta lau haizetara zabaltzen dugu. Gure txikiek ere hala diote, beraiek mutrikuarrak direla.

Familia eta futbola batzen zailak?

Oso gogorra. Egun osoa hartzen dit lanak eta etxeratu orduko umeak askotan lo eta emaztea neka-neka eginda… Lan honek duen exigentzia-kargak familiari kentzea dakar, familiarekin gozatzeko uneak. Gabonetan, adibidez, jendea oporretan eta familia giroan eta gu Ingalaterrara partiduak ikustera. Eta asteburuetan ere partidutik partidura ibiltzen garenez… Egin kontu: iaz, zuzendaritza teknikoan dihardugunok 526 partidu ikusi genituen, batez beste, bakoitzak lau partidu astebururo, Euskal Herrian, estatuan eta atzerrian ere bai, Portugal, Frantzia, Belgika, Holanda… Umeak esaten didatenean “aitxa, partidua ikustera etorri behar zea” eta joan ezin naizenean, gogorra egiten zait, baina lanak konpromisoa eskatzen du eta lan honetan haize kontra joatea eskatzen du askotan. Udan ere, jende guztia oporretan denean, gu aurredenboraldian bete-betean sartuta!

Zelako harremana duzue Errealarekin eta Athleticekin?

Harreman ona dugu biekin. Eibar dagoen tokian egon ahal izateko, Errealak emandako laguntza gogoratu behar dut. Gaur egun Errealean kategoria ezberdinetan dauden hainbat jokalari Eibarren hasita daude, eta Eibarren ditugunak eta izan ditugunak Errealak utzitakoak edota lortzen lagundutakoak izan dira. Eta hori Eibarrentzat asko da. Era berean, Eibarren zedituta edo utzita jokatzea ere ondo datorkie bai jokalariei bai beste klubei.

Ikusten al duzu zeure burua berriz entrenatzen?

Ez, gaur gaurkoz, azken urteetako lanean murgilduta nago eta aurrera begirakoan ere ez dut uste entrenatzen hasiko naizenik. Egia esan, entrenatzaile jardun izanak askotarako balio izan dit bulegoko beste lan honetarako. Guri futbolariekin eta beren inguruarekin tratua egitea dagokigu, eta horretan giza-harremanek berebiziko garrantzia hartzen dute. Futbolari bakoitzari bere aldetik heldu behar diozu, jakin behar duzu futbolariek zer baloratzen duten, zer komeni zaien… eta hori urtetan eta urtetan kaxetetan ikasten da ondoen.

Orain momentuan, nire kezka bakarra da Eibar Kluba sendotzea, duen proiektua egonkortzea eta etorkizunerako oinarriak ipintzea. Bihar atzo baino hobeto egon dadila Kluba. Pentsamendu horretan sartuta, ez naiz hasten bestelako pentsamenduetan.

Hamaika anekdota bizi izango zenituen, ba.

Asko. Bat, xelebrea: jokalari beterano bat fitxatu nahi genuen, eta berarekin harremanetan jarri eta konbentzitu genuenean, esan zigun arazo handi bat zegoela, izan ere, bere emazteak ez baitzuen Euskal Herrira etorri nahi, euri asko egiten zuela eta! Hori entzunda, emaztearengana joan eta lan handia egin genuen konbentzitzen. Halako batean, erabaki zuten etortzea. Urtebetera, kontratua amaitu eta joan behar zutenean, emaztea zen joan nahi ez zuena, nahiz eta euri asko egin!

Eskerrik asko, Fran, zure denbora preziatutik tarte bat eskaini diguzulako. Aupa Eibar!

Donostia 2016 Kultur Hiriburutza

Kultur Hiriburutza Europar Batasunaren ekimen bat da, duela 30 urte sortua, 1985ean hain zuzen ere. Melina Mercouri Greziar kultur diputatuaren ideia, Europako herri ezberdinen arteko gerturatzea eta elkartrukea sustatzeko.

Hauek dira bere helburuak:
– Europako kulturen aberastasun, aniztasun eta ezaugarri komunak nabarmentzea.
– Europako herritarren arteko ezagutza areagotzea.
– Europako komunitate berberaren parte izatearen inguruko kontzientzia handitzea

Urtero bi hirik jasotzen dute Kultur Hiriburutza izendapena. Gurekin batera, 2016an, Poloniako Wroclaw hiria izango da.

Donostiak bere hautagaitza 2010ean aurkeztu zuen, "Elkarbizitzarako kultura, Herritarren Energia Olatuak" lemapean. 2011Ko ekainean izan zen hautatua.
Gure hautagaitzaren ekarpenak. Ideia nagusiak:

•"Elkarbizitzarako kultura" da lema nagusia. Ez da gainerako hiriburutzen antzekoa horretan, baloreekin egin nahi da lan. Kultura eta praktika artistikoek elkarbizitza hobetzen lagun dezaketela da ideia nagusia. Elkarbizitzan aurrerapausoa eman nahi da.
•Ondarea. Zer utziko dugu hiriburutza pasa ostean? Garrantzi handia dauka horrek. Proiektu guztietan oso presente dagoen ideia da.
•Programa partehartzailea, ez bakarrik kultur ekintzen kontsumitzaile gisa, baita edukiak sortzen ere. Behetik gorako programa.
•Dimentsio europarra. Hemen, gurean, egiten dugunak Europan eragina izan behar du eta, alderantziz, Europan egiten denak ere izan behar du gurean isla
-Europako eragileekin harremana.
-Hirien arteko harremana.
-Europar identitateari ekarpena.

DSS2016EU programa, zenbakitan:

•12 hilabete
•102 proiektu
•458 jarduera
•500 kultura-eragile eta artista
•132 jarduera, zuzenean herritarrek aukeratuak
•48.772.012 €-ko aurrekontua

KULTUR PROGRAMA

Mutrikuar gisa, zertan parte hartu dezaket? Gure herrian zer gertatuko da?
Hona, adibide gisa, 4 proposamen:
Emusik: Mutrikuk parte hartzen du proiektu honetan. Europako Musika Eskolen Jaialdia dela bide, 2016an, 120.000 ikusle baino gehiago izango dira Donostian, 10.500 musikari, 26 herrialdetatik etorritako 420 talde, eta mila ekitaldi baino gehiago, hiru egunez eta hiriko hainbat txokotan, urte bakar eta berezi batean, Europako Kultur Hiriburutzaren urtean, hain zuzen. Jaialdiari esker, Europako hainbat lekutatik etorritako gazteek interpretatutako musikaz gozatzeko aukera izango dugu, eta aukera paregabea izango da kulturen eta lurraldeen artean ezagutzak eta esperientziak trukatzeko.
2016 bidea: Euskal gizarteak berezkoak dituen mendizaletasunak eta kulturzaletasunak bat egiten dute proiektu honetan. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldea 32 etapatan zeharkatuko dituen ibilbidea da 2016 bidea. Hiria eta mendia tartekatuz, natur eta arte balio esanguratsua duten tokietatik igaroko da. Bidea egiteko antolatuko diren irteeretan, naturaz eta kulturaz aldi berean gozatu ahal izango dute ibiltariek, ibilbidean jarduera kulturalak antolatuko baitira; bai hasieran, erdibidean edota amaieran. Martxoa eta urria bitartean, igandero eramango dute mendizaleek DSS2016EUren lekukoa Euskal Herri guztian zehar, ia 600 kilometro luzetan. Mutrikutik pasako da 2016 bidea eta bi ekitaldi izango dira bertan.
Europa bat-batean: Europako inprobisatzailerik onenek Donostian izango dute hitzordua, Europako kulturen ahozko tradizioen nazioarteko topaketan. Ordezkari sardiniar, kurdu, galego, kanariar, katalan, galestar, austriar eta poloniarrek bertsolariekin batera jardungo dute eta, horrela, zenbait tradizio batera jarriko dute eszenan, kulturen arteko elkarrizketa batean. Gurutzaketa horiek arratsaldero herritarren bila aterako dira; izan ere, hiriko espazio publikoetan izango dira.
Gabon Txirrita: bertsozale eta antzerkizale da Mutriku herria, Hona bi zaletasunak uztartzen dituen proposamena. 1982an, Xabier Letek teatro-lan bat taularatu zuen: Gabon, Txirrita. Pertsonaia nagusia Jose Manuel Lujanbio "Txirrita" bertsolari famatua izan zen. Historiaren Auzitegiak pertsonaiaren ibilerak epaitzen ditu, "gizon izugarri" gisa deskribatuta. 80 urte beteko dira Txirrita hil zenetik eta, urtemuga hori dela eta, hiriburutzak Leteren obra berriro taularatuko du Urnietako herritarrekin lankidetzan. Bestalde, Bernardo Atxaga idazleak Leteren obraren hariari tirako dio testu dramatiko berri bat osatzeko.

Eta, aurrekoez gain, 100 proposamen baino gehiago. DSS2016 webgunean (dss2016.eu) topatuko duzue hilabetez hilabete zer ikusi eta zertan parte hartu.

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

ANDONEGI
HONDEAKETAK
GARRAIOAK
Tel.: 635 736 957 - Mutriku (Gipuzkoa)

HELDUEN MAILAN TXAPELDUNA: Iñigo Andonegi Egurbide.

NI, ROMAN "OKELAR", 2014ko NEGUA

Doinua: Mutil koxkor bat itsu aurreko

1)
Bihotza zimel, besoak ihar...
hau da atarramendua!
Urte luzeen ajeek eta
naukate erdi zendua,
nire bi oinei ahaztu zaie
zemaidaten sostengua,
gurpildun aulki batean soilik
aurkitzen dut sosegua,
nago aurtengo hauxe izango
dudala azken negua.

2)
Burua daukat iraganeko
egun ederrez beteta.
gaur hartuko dut horietako
batzuk aletzeko beta.
Bada baserri apal samar bat
Arno oinetan gordeta,
han jaiotzea baino hoberik
ezin zitzaidan suerta,
bere podrean munduko xarma
denak biltzen zitun eta.

3)
Supazterreko seaskan goxo,
jira-biraka otoitzak,
jaso nituen aitamei esker
euskarazko lehen hitzak,
panderoaren txinparta eta
bertso idatzien printzak,
nolabait ere gaur bertsolari
bihurtu banau bizitzak,
sutondo xume hartan bilatu
ezusteko horren giltzak.

4)
Lurra biraka dabilenetik
goseak ez du jolasik,
Okelarreko lanei bulartsu
lotu nintzaien goiz-goizik,
abeltzain eta belar berrien
usain berdeakin pozik,
eskolarako ordu eskastxo
neuzkalako izan ezik,
munduan ez zen zorion hura
areagotzeko sosik.

5)
Ekia piztu eta itzali,
jakin nuen berehala
neskei begira ninia gizen
bilakatzen zitzaidala,
eta oldartzen hasia zela
nire sabelpe apala,
amoranteen mainak ibili
nituen behar bezela,
baina mutilzahar darrait oraindik
jaunak nahiko zuen hala.

6)
Gustura bizi beste lanik ez,
sortu zitzaizkidan penak
soldadutzara Madrileratu
ninduenenan gau trenak.
Utikan hango desfile gangar
eta mosketoi herrenak,
nintzenagatik merke luzatu
ohi zizkidaten eztenak.
Jakin hobeto nintzela hemen
zimaurrez galtzabarrenak.

7)
Ene ezinek ez dezatela
barregurarik zugan sor,
gainerakoan izan dut eta
hamaika pozbide koskor,
lagunarteko afariak han,
santaeskeak berriz hor,
oraintxe bertan bihotza bete
bertso darabilkit bor-bor,
hutsaren hutsa badira ere
sentiarazten naute nor.

8)
Ez nauzue ni Okelarreko
arbolan txori bakarra
Modestok zuen nire aldean
txorrotxio fin azkarra,
urteak dira hartu zuela
zerurako bide zaharra,
plaza gutxiko bertsolaria,
koplarietan izarra,
hari zor diot oroz gain nire
bertsoetarako harra.

9)
Anaia biok besarkatuko
garen goiza dago hurbil,
noiz eta nola ez jakitean
aztoratu xamar nabil.
Betidaniko zuen beroa
eskertzeko ez dut nahi hil,
"euskaraz maite zaituztedala"
esan eta noa trankil,
heredentzian uzten dizuet
dozenerdi bertso hozkil.

Txanbeleneko arrain haundixak

Kontu jakiña da geure herrixan, sasoi baten, tabernatan batzen ziran maiñelek itsasoko gorabeheren inguruan jarduten zeuela. Zeiñek harrapau zoan arrain gehixen, zeiñek arraiñik haundixena... Ez ziran falta bertan harrokerixia eta adar jotzia. Danetatik pixka bat. Gure maiñelek ez dauke, ez, ahaztutzeko giro berezi haura.

Bi pasadizo ekarriko ditxugu hona, bixak portuko *Txanbeleneko taberna* ezagunekuak. Juanito *Txanbelek* eman digu lehelenguaren berri; bigarrena berriz, aspaldiko aldizkari baten topatu degu.

Lantesaren bertsuak

Juanito Larreinaren amonaren (Mariajoxpa, 1882) anaixari *Erramon* zakon izena, Ramón Basurko Etxeberria (1894). Txanbeleneko barkuetan ibilli zan makinista, gero Pasaen egin zitxuan urte batzuk arrastan, eta azkenik, Donibane-Lohitzuneko barkuetan urte mordua, harik eta itsu gelditxu arte. Iparralden bizi arren, udaberri-uda aldian (martxotik iraillera) egonaldixa egitxen zoan bere bihotzeko Mutrikun.

Halakuetan, lagunak-eta, beti ibiltzen zakozen esaten itsasora juateko eta itsasora juateko. Berak ezetz, eta ezetz, itsua izanda... Urte baten baiña, *Txokerok* eta *Xobietek* tentatu zeuen, eta baitxa lortu ere itsasora eruatia. 1949. urte ingurua zan.

"Txokero" ere familiartekua zoan Juanito Txanbelek; euren aitxonaren (Simeón, 1879) anaixa zan, Eusebio Arreitunandia Galdos (1883). Tolondarra zan *Txokero*, mutilzaharra.

Hirugarren maiñela: "Xobiet" ezaguna, Leto Miguel Goenaga Larrañaga. Xobietek berak esaten zakixanez *"Txaparroneko seme historialarixa".*

Batu ziran ba, hiru lagunak, eta arraunian, kalara aillegatu eta handikan gitxira, hirugarren edo laugarren kaladan... Erramon itsuari 9,5 kiloko lantes *(Argyrosomus regius)* ederra katiau zakon amuan!. Esparbelakin-eta, lortu zeuen altzatzia lantesa. Portuan segitxuan zabaldu zan berrixa.

Jexux Zumalaberen (1899) belarrixetara ere aillatu zan notizia, *"enteratu nai itsasoa jun zeala...".* Esplikau zixuenian itsuaren balentrixa, esan ei zoan *"nik ateako ditxut bertsuak".* Aginduak zorra dakarrenez, maiñelek aldixan-aldixan gogoratzen zixuen preparau bihar zitxuala hitz emandako bertso harek. Handik 4 hillebete ingurura, domeka baten Zumalabek abixua eman zixuen Txanbelenekuei, *"martitzenian etorriko nai tabernara bertsuakin".*

Esandako egunian, han ziran, Txanbeleneko tabernan 50 lagunetik gora, zain, bertso harek entzuteko desiatzen. Juanito Txanbel ere bertan egon zan; 12 urte zakazen orduan. Danetara 8-10 bertso kantauko zitxuan Zumalabek bere abots ederrarekin. Lau, behinik behin, buruan dakaz oraindik Juanitok:

1.
Erramon ta Txokero,
bestia Xobiet;
horrei hirurei orain
zerbait esan bihet.
Bertsoa botatzeko
memoria badet,
arrantzalia zein dan
orain esango det.

2.
Potin baten hirurak
juan ziran arrantza,
marejadia eta
bastante balantza.
Erramon Txanbelenekok
bazun esperantza,
bere buruarekin
zeukan konfiantza.

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

3.
Kalara allatuta
bota zuen pondo,
Ramonek esan zuen:
"orain niok ondo,
bota aparijua,
karnatauta al do?"
Laister erriatu zuan
arraiñak noiz jango.

4.
Beatzi kilo ta erdi,
ederra lantesa!
Haura enbarkatutzeko
apuru ta presa,
Erramon Txanbeleneko
ezta aldrebesa,
berriz harrapatu baietz
ein leike trabesa.



Lantesa *(Argyrosomus regius)*

Beste bertso baten, gizurtxo bat ere sartu zoan Zumalabe adar-jotzailliak. Itxura danez, bertso hortan azaltzen zoan *Xobieten* alabak lantes haura zatitxu eta amantal politxa jantzitxa Beheko Plazan saldu zoala. Baiña, jakiña zan herrixan *Xobiet* bi aldiz ezkondu arren ez zoala seme-alabarik euki!
Zenbat barre eta zenbat txalo! Juanito Txanbelek tabernan gogoratzen doan egunik alaixena izan zan haura.

Arrantzaliei galdetuta jakin degu *lantesa* arrain listua dala, argixa. Amuan kabra txikixa, antxua-filetia edo sardiña-tatua jarritxa, 20-25 brazako ubaroian harrapatzen zan, momarreixan, itsas bazterrian. Erramonena lantes haundixa izan arren, orain gitxira arte itxuria ez zan hain arrarua ere ale haundixak katiatzia; izan ere, ezagutu ditxugu Mutrikun 7-10 kiloko lantesak harrapautako maiñelak.

Durdua *(Labrus bergylta)*

Sasoi baten, Kardalian ere harrapatzen ziran lantesak. Begoña Eleizgarai "Kalala" zanak azaldu zigun bere aitxona Kardal gaiñian ibiltzen zala lantesak eta burbiñak arrantzatzen. Beti han zabillenez, azkenerako ezizena jarri zixuen *Kalala* (< Kardala).

Aberriren durdua
1929ko abuztuaren 24an, Angel Osoro "Aberri" mutrikuarrak durdo *(Labrus bergylta)* haundi bat harrapatu zoan haitzetan. Kalixto Basterretxea "Itxas-aurre" kazetarixak, berezko umoriarekin, haren berri eman zoan ARGIA astekarixan:

"Juan da larunbat arratsaldean izugarrizko "durdua" arrapatu zuan Aberrik arroketan; bi orduko esposiziua egondu zan Manuela Txanbeleneko tabernan; baña bai aguro igarri Joxe Manuel'ek baztangakin ildako arraina zala.

Esposiziuaren ondoren kalean barrena ikusi genduan Aberri bere "durdua" eskuetan zuela. Arro-txo, arrotxo; guk bezela arakiñak ere ikusi zuten ta oso beldurtu ziran, bada ez dutela salduko aragirik eta Aberriri erregutu zioten ezkutatzeko arrai ura, baita ala egin ere, artu atxurra tzazt zuluan; ta batzar gabeko entierrua ere bai Aberrik".

Durdua ez da lantesa bezain fiña jateko; egixa esan, jateko arraiña bada ere, beste edozein arrain nahixo izaten da hau baiño. Luxama, txistu eta karraspixuaren famelixako arraiña da. Haitzetan harrapatzen da, ixa itsas bazterrian; karnatatzat, konparaziotarako, paretako kamarro biguna jarri leike. Baiña kontu jakiña da Mutrikun ez dala egon durdotarako apan haundirik.

ARGIAko berrixa irakurritxa konturatzen gera Mutrikuko beste hainbat tabernatan bezela, hemen ere andrazkua zala nagusixa, kasu honetan "Manuela Txanbeleneko" edo "Manuela Txanbel", hain zuzen ere, Manuela Etxeberria Zelaiaran (1859). *Txanbel* ezizena XIX. gizalditxik dator. Orduan, Manuelaren aitxak-edo, itsasoko haizezurrunbillua zala-ta esan ei zoan *"hauxe da txaranbela! "*. Eta *txaranbeletik Txanbel.*

Bistan do Txanbeleneko tabernia, gure herriko beste hainbat taberna eta txoko bezela, Mutrikuko arrantzalien sozializazio eta atseden tokixa izan zala orduko bizimodu gogor hartan.

Josu Larrañaga Arrieta

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrildea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

ALKOLEA ARDOTEGIA
Jon Andoni Besurko Pagoaga
Tel.: 943 60 35 99
alkolea.edariak@gmail.com
Edariak eta gehiago...

MUTRIKU UEMAN

...baina zer da UEMA, edota UEMAn egotea (UEMAren parte izatea)?

Beharbada, askok jada badakizue erantzuna, baina beste askorentzat ezezaguna da. Baten batzuk, UEMA entzutean, herri sarreretan dauden kartelekin akortatuko dira (irudian dagoena).

Zer da UEMA?

UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) etorkizuneko Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den erakunde publikoa da. Mankomunitate izaera dauka, eta 1991n, sortu zenean 19 udalek osatzen bazuten ere, egun 73 udalek osatzen dute. Tartean, Mutriku. Gure herria 2001ean sartu zen UEMAn, Udalbatzaren erabakiz.

Alderdi ezberdinek (EAJ, EHBildu eta Independienteak) osatutako 11 kideko Zuzendaritza batzorde batek eta lantalde tekniko batek darama erakundea aurrera. Bertako alderdi politikoen elkarlana urtetik urtera hobetzen joateak mankomunitatea indartu egin du eta euskararen arloan arrerapausoak emateko gako bihurtu da.

UEMAren helburu nagusiak:

- Herritarren bizitza pribatu zein publikoa euskaraz izateko bideak urratzea.
- Euskara nagusi izango den lurgunea saretu, sendotu eta hedatzea.
- Herrien garapen sozioekonomikoan eragitea.

Zer suposatzen du UEMAn egoteak edo bere parte izateak?

UEMA euskararen arnasguneek (herri euskaldunek) osatzen dute, eta bertako kide izateko baldintza herritarren euskararen ezagutza gutxienez %70ekoa izatea da. Mutrikuk betetzen du baldintza hori, nahiz eta azken datuek beherakada erakutsi (herri euskaldun askotan gertatu da beherakada hori).

Mankomunitate honetan egoteak aurrera egiteko konpromisoak hartzea eskatzen du eta aurrerapausoak ematea udal gobernuaren erritmoaren araberakoa izaten da askotan.

UEMAk Udalera eta herrira begira lan egiten du eta honakoak dira bere egiteko nagusiak:

- Udalera begira:

1/. Zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza euskara izateko baliabideak eskaintzen ditu, eta Udalera begirako euskara plana martxan jartzen du, funtzionamenduan eragiteko.

2/. Hizkuntza aholkularitza (itzulpen laburrak eta zuzenketak).

3/. Hizkuntza aholkularitza juridikoa.

- Herrira begira:

1/. Merkataritza-ostalaritza (kanpainak, itzulpen laburrak, hizkuntza aholkularitza, fakturak euskaraz, kartelak...)

2/. Tailerrak, hitzaldiak eta erakusketak (datu soziolinguistikoekin herriaren egoeraren jabe izateko). Gainera, arloka egokitu daitezke. Mutrikun iaz izan genuen Arnasguneei buruzko tailerra jasotzeko aukera.

3/. Kanpainak: Errenta aitorpena euskaraz, abizenak euskaldundu, transmisiorako sentsibilizazioa...

4/. Hezkuntza proiektua: Irakasleen formakuntza (datu soziolinguistikoak...)

Horiek guztiak eta gehiago (herri euskaldunen azken urteetako hizkuntz bilakaera, adibidez) euren webgunean ikus daitezke; *www.uema.eus* helbidean. Eta nola ez, Mutriku UEMAko herria den heinean aipatutako guztia du eskuragarri, musutruk.

Aurten, gainera, UEMAk 25 urte beteko ditu, eta bere erronketako bat 2016an 80 herri izatera iristea da.

Guri, ordea, Bai txo! Elkarteko kideoi, Udala eta UEMArekin elkarlanean jarraitzea dagokigu, Mutrikuk euskara arloan galdutako esparruak berreskura ditzan eta egunerokoan harrotasunez bizi gaitezen geure hizkuntzan.

Bai txo! Euskara Elkartea

KARNABAL, KARNABAL, KARNABAL MAITE ZAITUT!

Txantxangorrixak urtarrilean ere ezin geldirik egon eta ekin eta ekin ibili gara. Gabonetako oporrak lasai-lasai pasa eta gero, buru belarri ibili dira gure txantxangorriak sormena landuz. Lan bikainekin gainera. Esan beharra dago oraingo eskulanetan ere ama-lurra kontuan izan dugula, eta, zer nolako imajinazioa duten gure haurrek! Begi bakarreko ehunzangoak batetik, eta kolorez jositakoak bestetik. A ze artelanak! Ez al da tristea denboraren poderioz sormen hori galtzea?

Arrautza kaxa, pintura eta askatasuna izan ziren gakoak gure ekintzan, jakina baitugu, haurrei inolako inposiziorik gabeko ekintzak planteatzerako unean, haien barrenean duten hori ateratzeko aukera izaten dutela eta askotan, honela soilik izaten dugula haurra den bezalakoa ezagutzeko beta. Baina, zein zaila den askotan askatasunari tartea uztea. Egunerokotasunean hain errutina eta ekintza gidatu pila izaten dituzte ze, txantxangorriko ekintzetara etortzean ere, gidari bila aritzen direla, baina ez da hori gure lema, gidari baino bidelagun izateko hautua egiten du txantxangorrik. Haurraren hezkuntza prozesuan bidelagun.

Hori lortzeko helburuarekin eraman genuen aurrera aurretik aipaturiko ekintza. Eta ikusi genuen, karnabaletan kalean zehar aurki genezakeen aniztasuna bezala, ehunzangoak ere anitzak izan zirela, eta haurrak onespen bila aritu ziren arren, eskolan ez bezala, txantxangorrin haurrak bere eskulan propio eta ezberdina egiten duelako eta asko, beldur agertzen baitira haien buruarekiko zein trebetasunekiko, baina, begiraleak hitz goxo eta animozkoak esatea nahikoa izan zen beldur horiek airean geratzeko. Izan ere, zer hobeagoa aniztasuna baino?

Karnabaletan ere, etnia desberdinetako izakiak ikusteko beta izan genuen, beste batzuk ohiko mozorroak albo batera utzi eta gurekin landutako sormena praktikan jarri zuten… zer nolako mozorroak! Urtean behin bada ere, aurpegian maskara jarri, lotsa armairuan gorde eta umorez beteriko poltsa gainean jarrita, Mutriku kolorez betetzera animatzen gara. Ez bakarrik baina, hainbatetan esan bezala, horrelako egunetan talde lanean eta elkarlanean jardutea garrantzitsua da ospakizunaz denok gozatzeko.

Aurten gainera, mozorroez gain, Euskal Kulturak eskaintzen digun eta tamalez urtez urte jende gutxiagok parte hartzen duen Santa Eskea ere izan genuen. Hasieran, baserriz baserri, Mutrikuko txoko ezkutuei alaitasuna eramanaz, eta ostean, herrian bertan kaleko jendeari adarra joaz. Trikitia, pandero eta txaranga hotsak ere lagun izan genituen jai giroari bere martxa jarriz.

Besterik gabe, espero idatzi honek hausnarketa pertsonal bat egiteko balio izatea eta zuen semealabei eskaini nahi diozuen askatasunaren inguruan pentsatzea. Honekin agurtzen gara oraingoz eta hurrengo ekintzan elkar ikusteko asmoz, ondo segi txantxangorri!

Txantxangorri aisialdi taldea



ZORIONAGURRAK

IXONE
Zorionak gure etxeko txipriztinari 25ean 3 urte haundi egingo dituelako. Amona Pakita eta atxitxe Jabierren partez.

AMAIA
Zorionak, otsailaren 14an 12 urte handi bete dituzulako. Muxu erraldoi bat familiko guztion partez.

MANEX
Zorionak Manex zure 3garren urtebetetzean, etxeko denon partez matxo handi bat.

ARANTXA
Zorionak bihotzez etxeko guztion partez.

EDURNE
Ni euri tanta banintz... Zorionak lagun!

MANEX
Zorionak Olabarrieta auzoko mexikar politenari. Matxo handi bat auzokoen partez.

SOCORRO
Zorionak ama, amona, birramona... Asko maite zaitugu!

EMAKUME
Martxoaren 8a egunero delako. Gora emakumeak!

MASILLAS eta KALAMAX
San Anton egunez bisiguak ez ezik aitxona finak ere bai. Zorionak!

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

ARMAZOIA + LENTEAK 89€-TIK
VOGUE
Uzuri
ELGOIBAR - DEBA
optika audio

ERAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

ARRAUN TALDEKO NESKAK 1988

Ezkerretik eta goitik hasita: Nekane Talledo Goenaga, Eva Elezgarai Agirrebengoa, Itziar Galdos Beitia, Mari Jose Agirrebengoa Ansorregi.
Erdiko ilaran: Ane Miren Andres Elezgarai, Felicitas Elezgarai Urreisti eta Alaitz Elezgarai Galparsoro.
Beheko ilaran: Arantzazu Garagarza Mendizabal, Iratze Garagarza Mendizabal, Mirari Otaño Egurbide eta Goizane Barrenetxea Manterola.

(Argazkia: Goizane Barrenetxeak utzitakoa)

ESKERTZA

"JESUSA AMETZA"ren heriotzean,
bere hileta eta agurrean
gureganatu eta partaide izan
zareten guztioi,
bere familiaren bere benetako,
ESKER ONA.

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ZAINTZAKO BOTIKAK Gaueko 10ak arte

OTSAILA

15etik **18**ra Zalduegi
19tik **21**era Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
22tik **25**era Lasuen-Elezgarai
26tik **28**ra Apraiz
29 Burgoa

MARTXOA

1etik **3**ra Burgoa
4tik **6**ra Zalduegi
(zapatu goizian Lasuen-Elezgarai)
7tik **10**era Apraiz
11tik **13**ra Lasuen-Elezgarai
14tik **17**ra Zalduegi
18tik **20**ra Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
21etik **24**ra Lasuen-Elezgarai
25etik **27**ra Apraiz
28tik **31**ra Burgoa

Gaueko 10etatik aurrera
ELGOIBARREN
(ikus 4. orrialdea)

OTSAILA - MARTXOA
MUSIKA HILABETEA

Otsailak 20, zapatua
Sotto Voce laukotea
Santa Katalina komentuan
20:00etan

Martxoak 5, zapatua
Lekeitioko Banda
Euskal Kantaband kontzertua.
Andra Mari Jasokundearen
parrokian
20:30etan

Martxoak 12, zapatua
Molto Vivace
Umeentzako ikuskizuna
18:00etan
Zabiel kultur etxean.

Martxoak 19, zapatua
Mutrikuko Musika banda
13:00etan Zabiel plazan
(Euria balitz Kultur Etxean)

GAZTETXEAN OTSAILEAN
MUGA+MRK antolatuta

Otsailak 20
Joseba Irazoki eta lagunak
+
Shurikatta
(sarrera: 5 euro)

Otsailak 28
Zine emanaldia

MENDI IRTEERAK

OTSAILAK 21

DEBA-ZESTOA

MARTXOAK 13

SAGARDOTEGIA

ATE IREKIAK
APIRILAREN 9AN

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILA

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenimendu elektromekanikoa

Sarbide proba goi mailarako

GOI MAILA

- Administrazioa eta finantzak
- Ekoizpen Prozesuak eta Kalitatea Elikagaien Industrian
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Mekatronika industriala
- Web Aplikazioen Garapena

ARRATSALDEZ

- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa

lea artibai
ikastetxea
Etorkizuna eraikiz

94 616 90 02 · info@leartik.com · www.leartik.com

LEA-ARTIBAI NUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO

Egin zaitez **HITZA** harpideduna
martxoaren 31 baino lehen,
eta jaso
baserriko produktuez
osatutako saski ederra...

opari!

Mahala
www.mahalanaturala.com

MUGA RANCH

Harpidedun guztien artean zozkatuko dugu:
Zaldian ibitzen dakiten bi lagunentzat, 2 ordu inguruko ibilbide bat Alkiza aldetik.
Ez dakiten bi lagunentzat, zaldian ibiltzen ikasteko 2 ordu inguruko klase bat.

harpidetza@hitza.eus

94 684 44 36 / 902 82 02 01

Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea

MUTRIKU

943 60 31 86

gorritxuautoak@hotmail.com

- ✓ ITV
- ✓ DIAGNOSIA
- ✓ ELEKTRIZITATEA
- ✓ MEKANIKA
- ✓ GURPILAK
- ✓ MANTENIMENDUA

Aurrekontuak konpromiso gabe

Autoa nahi duzun tokian jaso eta itzuliko dizugu